

- **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:**

Gure bezero zuzenak, supermerkatuak dira gehienbat, baina baditugu beste bezero batzuk zeharkakoak direnak: bizkar arazoak dituen edozein pertsonak, nagusiki pertsona nagusiak. Gure bezeroek, supermerkatuak, erosle gehiago izatea dugu helburu eta horren ondorioz, gure proposamena horretan nabarmentzen da. Hori bai eta esan bezala,



supermerkatu txikientzat zuzenduta dago, supermerkatu handietan haien bezeroak batez ere karroa erabiltzen baitute.

Gure helburua supermerkatu txikiek daukaten bezero kopurua handitzea eta fidelizatzea da.

Azken finean, supermerkatu handietara joaten garenean hilabeteko edo asteko erosketak egitera joaten gara, eta beraz, karroa erabiltzen dugu produktu asko erosten baititugu. Kasu hauetan, ez ditugu otzarak erabiltzen hauetan ez baitira produktu asko sartzen. Supermerkatu txikietan aldiz, eguneko edo bi eguneko erosketak egitera joaten gara, eta horretarako zesta erabiltzen dugu.

Produktu ezberdinak eta ingurunea kontuan hartzen duten materialarekin egindako zestak eskaintzen ditugu. Inguruarekin kotzientzia handia daukagu, eta horregatik gure produktua material birziklatuekin egingo dugu. Beraz, Egutegi reciclados S.L.U enpresak plastikoa bidaliko digute, haiek lurraren arazoekin kontzientzia handia daukate, beraz, plastikoa birziklatu egiten dute, horrekin, plastiko xaflak egiten dituzte. Hori uste dugu alde positibo bat dela, gure bezeroek gainontzeko enpresetatik ezberdinak izango direlako. Orokorrean supermerkatu guztiek ez dituzte honelako saski birziklatuak haien dendetan. Beraz, supermerkatuen bezeroek haien denda aukeratuko dute abantailak ematen dizkietelako erosketak egiteko momentuan eta gainera, ez dute kutsatuko. Guztiok dakigu klima aldaketa gaur egun pil-pilean dagoen gai bat dela eta guztiok oso informatuta gaude gai horrekin, beraz aukera handiak ditugu honelako enpresa batekin lan egitean.